(20) Data: mindak noiz eraman ziren ustiategitik.

(21) Zehaztasunak: mindak nola eraman diren zehaztu (ustiategiaz kanpoko kamioiz, ustiategiko biltegira eta abar), eta mindak inoren edo besteren bidez eramaten badira, egiaztagiria erantsi.

(22) Norakoa: mindak nora eraman diren adierazi eta toki horretara heldu direlako egiaztagiria erantsi.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-5829

274/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituena (EREIN programa).

Apirilaren 8ko 10/1998 Legearekin bat etorriz (Landa Ingurunearen Garapenari buruzkoa), Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunearen garapenaren helburu nagusiak ondokoak dira: euskal nekazaritzari nahiz landa-inguruneari eustea, nekazaritzaren eta landa-ingurunearen funtzio aniztasuna bermatzea eta sustatzea, landa-ingurunearen izaera adierazten duten funtsezko ezaugarriak zaintzea, eta nekazaritzaren eta landa-inguruneetako enpresen zein egitura ekonomikoen lehiarako gaitasuna hobetu eta areagotzea. Horrela, mugatu gabeko indarraldia duen dekretu honetan —lehenago, 2000. urterako bakarrik, uztailaren 28ko 167/2000 Dekretuan egin zen bezala— Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko neurriak arautu dira, eta laguntza ekonomikoak emateko prozedura nahiz baldintzak erregulatu. Nekazaritza eta Arrantza Sailak emango ditu laguntza horiek, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren barruan aurreikusitakoaren arabera. Hori guztia bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra arautzen duten Printzipioen Legeko testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin.

Kontseiluaren 1999ko ekainaren 21eko 1260/1999 EE Erregelamenduak egitura-funtsei buruzko xedapen orokorrak ezarri ditu, eta 2. zenbakiko helburuko eremuen garapenerako egituretan parte hartzeko programazio-prozedura finkatu du. Horrela, 4.6.a) eta 4.9.c) artikuluek diotenez, 2. zenbakiko helburuko eremuen barruan —gogoratu Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu guztiak horien barruan daudela—, zenbait landa-ingurune gainbeheran edo egiturazko arazoekin daude, eta horien artean, Euskal Autonomia Erkide-

(20) Fecha: fecha en la que se retiraron los purines de la explotación.

(21) Condiciones: especificar cómo se realizó la retirada de los purines (camión ajeno a la explotación, depósito propio, etc) y adjuntar comprobación en caso de que la retirada se realice por medios ajenos.

(22) Destino: consignar el lugar de destino de los purines y adjuntar comprobación de su llegada.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-5829

DECRETO 274/2000, de 19 de diciembre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa EREIN).

Siendo, de conformidad con la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, objetivos generales de la política de desarrollo rural de la multifuncionalidad y la sostenibilidad de la agricultura vasca y del conjunto de su medio rural, preservar las señas de identidad fundamentales del medio rural, promover la mejora e incremento de la capacidad competitiva tanto de la agricultura como de las empresas y estructuras económicas de las zonas rurales, en el presente Decreto, y como ya antes se había hecho transitoriamente, para el año 2000, mediante el Decreto 167/2000 de 28 de julio, se regulan, con vigencia indefinida, las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y se regula el procedimiento y condiciones de otorgamiento de ayudas económicas cuya concesión corresponde al Departamento de Agricultura y Pesca, dentro de los créditos que a tal efecto se prevean en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de conformidad con el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

El Reglamento (CE) n.º 1260/1999 del Consejo, de 21 de junio de 1999, por el que se establecen disposiciones generales sobre los Fondos Estructurales, fija el procedimiento de programación de las intervenciones estructurales para el desarrollo de las zonas objetivo n.º 2. En este sentido, el artículo 4.6.a) y 4.9.c) establece, dentro de dichas zonas objetivo n.º 2, en las cuales se incluyen todas las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, determinadas zonas rurales en declive o con problemas estructurales que, para la Co-

goan, Europako Batzordeak 2000ko martxoaren 14ko Erabakian adierazitakoak.

Bestalde, (NBBEF) Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren kontura diren landa-garapenerako laguntzak arautu, eta zenbait erregelamendu indargabetu eta aldatzeari buruz Kontseiluak 1999ko maiatzaren 17an emandako 1257/1999 EE Erregelamenduaren 40. artikuluan finkatutakoaren arabera, eta, halaber, aurreko erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzeko, Batzordeak 1999ko uztailaren 23an emandako 1750/1999 EE Erregelamenduaren arabera, dekretu honetan jasotako zenbait neurri NBBEF-Berme sailak lagunduta finantzatu daitezke. Horrela, neurri horiek «Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Planaren» –LGJP– barruan sartuko dira (2000-2006 aldian), Batzordeak 2000ko urriaren 5eko C (2000) 2930 Erabakiaren arabera. Erabaki horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako programazio-dokumentua onetsi baitu, 2000-2006 programazio-aldirako.

Era berean, aurretik aipatutako 1260/1999 EE Erregelamenduko 2.3 artikuluak hauxe zehazten du: NBBEFko Berme sailak, 1257/1999 EE Erregelamenduko xedapenen arabera, 2. zenbakiko helburua lortzen lagunduko duela.

Laguntzak kudeatzeko, Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B. sozietate publikoa erakunde laguntzaile izateko izendatzen da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan jasotako araubidearekin bat etorriz, dekretu horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura emandako dirulaguntzak bermatu eta itzultzeko araubide orokorra, eta bertan ezartzen baitira dirulaguntza horien kudeaketan parte har dezaten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Beraz, Landaberrirekin eta Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, aldez aurretik Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko abenduaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko laguntza ekonomikoak emateko araubidea bildu eta arautzea. Laguntzok «Erein programa» izenez ezagutuko dira.

munidad Autónoma del País Vasco, están indicadas en la Decisión de la Comisión Europea de 14 de marzo de 2000.

Por otra parte, y de acuerdo con lo fijado en el artículo 40 del Reglamento (CE) n.º 1257/1999 del Consejo de 17 de mayo de 1999, sobre la ayuda al desarrollo rural a cargo del Fondo Europeo de Orientación y de Garantía Agrícola (FEOGA) y por el que se modifican y derogan determinados Reglamentos, así como el Reglamento (CE) n.º 1750/1999 de la Comisión de 23 de julio de 1999, por el que se establecen sus disposiciones de aplicación, determinadas medidas de entre las recogidas en este Decreto podrán ser cofinanciadas por el FEOGA-Garantía, siempre que se cumplan los requisitos en ellos recogidos y en el resto de la normativa aplicable. Así, tales medidas se incluyen en el «Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco» -PDRS- (2000-2006), conforme con la Decisión de la Comisión C (2000) 2930, de 5 de octubre de 2000, por la que se aprueba el documento de programación sobre desarrollo rural para la Comunidad Autónoma del País Vasco, referido al período de programación 2000-2006.

Igualmente, el artículo 2.3 del mencionado Reglamento (CE) n.º 1260 establece que la sección de Garantía del FEOGA contribuirá a la realización del objetivo n.º 2 según las disposiciones del Reglamento (CE) n.º 1257/1999.

Para la gestión de las ayudas se designa a la Sociedad Pública Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B. como Entidad Colaboradora de conformidad con el régimen previsto en el Decreto 698/l991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participen en su gestión.

En su virtud, de conformidad con Landaberri y con la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de diciembre de 2000.

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## NORMAS GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– Es objeto del presente Decreto recoger, así como regular, la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de actividades e inversiones de promoción y desarrollo, en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Tales ayudas se identifican bajo la denominación de «Programa Erein».

2.– Dekretu honen ezarpen-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurune arruntak eta gainbeheran edo egiturazko arazoekin dauden landa-inguruneak hartzen ditu, Europako Batzordeak 2000ko martxoaren 14ko Erabakiaren zehaztutako moduan (2000ko apirilaren 5eko EEAO).

3.– Dekretu honen indarraldia mugagabea izango da. Nolanahi ere, «Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Planak» –LGJP– (2000-2006) indarrean dirauen bitartean aplikatuko da, Batzordeak 2000ko urriaren 5eko C (2000) 2930 Erabakiaren arabera —Erabaki horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako programazio-dokumentua onetsi baitu, 2000-2006 programazio-aldirako—, eta onar daitezkeen aldaketak ere kontutan hartuko dira.

*2. artikulua.–* Laguntzen izaera, erak eta baliabide ekonomikoak.

1.– Dekretu honen indarrez emandako laguntzak itzultzekoak ez diren dirulaguntzak izango dira.

2.– Dekretu honek ondorengo laguntza-motak biltzen ditu:

a) NBBEF-Bermeak kofinantzatutako laguntzak (II. kapitulua).

b) Landa-inguruneetako azpiegituretarako eta ekonomiaren garapenerako laguntzak (III. kapitulua).

c) Landa-inguruneetako enplegurako laguntzak (IV. kapitulua).

3.– Xede horretarako baliabide ekonomikoak NBBEF-Berme sailaren funtsetik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako ezarritako aurrekontuko kredituetatik etorriko dira.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emango diren laguntzen kopuru osoak ezin izango du gainditu aurrekontuetan izendatutako zenbatekoa, ez eta, indarrean den legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada, zenbateko hori egokitzetik ateratzen dena ere. Beraz, ez da bidezko izango zenbateko hori amaitu ondoren laguntza gehiago ematea eta, une horretatik aurrera, dekretu honen eraginkortasuna eten egingo da laguntzak emateari dagokionez. Kreditua agortu dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpenez argitaratu ere.

Dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrerako laguntzak —alegia, NBBEF-Berme sailaren konturakoak (II. kapitulua)— ematea eta ordaintzea egokitu egin beharko zaizkie Europako Batasuneko organo eskudunek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Planari unean-unean jarritako baldintzei, eta horri dagozkion aurrekontu-baliabideei.

2.– El ámbito geográfico de aplicación del presente Decreto será tanto el de las zonas rurales comunes como el de las zonas rurales en declive o con problemas estructurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco definidas por Decisión de la Comisión Europea de 14 de marzo de 2000 (DOCE de 5 de abril de 2000).

3.– El presente Decreto será de vigencia indefinida, siendo en todo caso de aplicación durante la vigencia del «Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco» -PDRS- (2000-2006), conforme con la Decisión de la Comisión C (2000) 2930, de 5 de octubre de 2000, por la que se aprueba el documento de programación sobre desarrollo rural para la Comunidad Autónoma del País Vasco, referido al período de programación 2000-2006, con las modificaciones que pudieren aprobarse.

*Artículo 2.–* Naturaleza de las ayudas, modalidades y recursos económicos.

1.– Las ayudas que se concedan en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Este Decreto recoge las siguientes modalidades de ayudas:

a) Ayudas cofinanciadas por el FEOGA-Garantía (Capítulo II).

b) Ayudas a las infraestructuras y desarrollo económico en zonas rurales (Capítulo III).

c) Ayudas al empleo en zonas rurales (Capítulo IV).

3.– Los recursos económicos destinados a esta finalidad procederán de los Fondos de FEOGA-GARANTÍA y de los correspondientes créditos establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para cada ejercicio.

El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no excederá la correspondiente consignación o la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia del presente Decreto en lo relativo a la concesión de dichas nuevas ayudas y publicándose el agotamiento del crédito mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural en el Boletín Oficial del País Vasco.

La concesión y el pago de las ayudas otorgadas con cargo al FEOGA-Garantía (Capítulo II) desde la vigencia del presente Decreto, deberán adaptarse a las condiciones establecidas en cada momento en el antedicho «Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco» por parte de los órganos competentes de la Unión Europea, y al soporte presupuestario correspondiente al mismo.

III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako laguntzek, aldiz, Europako Batasuneko hurrengo zuzentarauak bete beharko dituzte: eskualdeak helburu dituzten estatu-laguntzei buruzkoa (1998/C 107/07) eta enplegurako laguntzei buruzkoa (1995/C 334/04).

4.– Eskatu eta espediente bakoitza osatu ahala emango dira hemen ezarritako laguntzak; betiere, Dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

*3. artikulua.*– Gastuei buruzko arauak.

1.– Eskabideak behar den moduan balioesteko, proiektua burutzeko aurreikuspenak justifikatzeko informazio egoki guztia aurkeztu behar dute eskatzaileek eskabidearekin batera, batez ere kostuei buruzkoa. Horretarako, aurrekontu zehatzak, edo/eta proformako fakturak, eta horiek betetzeko epeak erabiliko dira.

2.– Inbertsioek hasi gabe egon behar dute laguntza eskatzeko datan. Egoera hori Landa Garapeneko Zuzendaritzaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneetako udalerrietan kokatu behar dira inbertsioak, dekretu honetako 1.2 artikuluarekin bat etorriz.

4.– Lanpostuak sortzeko inbertsio-proiektuen finantzaketa lortzeko baldintza batzuk bete behar dira, bai proiektuko lanpostuak benetan sortzea, bai lanpostu horiek bost urtez mantentzea ere.

5.– Laguntzak emateko ebazpenean aurreikusitako epeetan egin behar dira laguntza jaso dezaketen inbertsioak eta jarduketak; nolanahi ere, eskaerako aurreikuspenetara eta finantzaketarako emandako kredituen izaerara moldatu beharko dira epeak. Dena den, bidezko arrazoirik bada, Landa Garapeneko zuzendariak ebazpena eman, eta epea luza dezake, baina ez bi urtez baino gehiago.

6.– Dirulaguntzekin egindako inbertsioen eta jardueren xedeari bost urtez eutsi behar zaio gutxienez, inbertsioak eta jarduerak egin ondoren.

7.– Dirulaguntzak eskatu dituen pertsonak nahiz erakundeak beharrezko neurriak hartu beharko ditu eskuratutako ekipoak eta materialak egokienak direla bermatzeko, bai kalitatez, bai kostuen aldetik, bai mantentze-lanen aldetik.

*4. artikulua.*– Onuradunak.

1.– Dekretu honetan arautatuko laguntzen onuradun izateko aukera dute, bai pertsona fisikoek, zein pertsona juridiko pribatuek (irabazi-asmodunak zein gabeak), udalek eta tokian tokiko erakunde publikoek, zuzenbide publikoko korporazioek eta indarreko legediak jasotako beste edozein forma juridikodunek, laguntza-mota bakoitzean aipatutako betekizunak betetzeaz gain beste hauek betetzen badituzte.

Las ayudas previstas en los Capítulos III y IV cumplirán las condiciones establecidas en las Directrices Comunitarias de Ayudas de Estado de Finalidad Regional (1998/C 107/07) y sobre Ayudas al Empleo (1995/ C 334/04).

4.– Las ayudas aquí establecidas se irán concediendo conforme se vayan solicitando y se complete cada expediente y siempre que se cumpla el resto de requisitos establecidos en el presente Decreto.

*Artículo 3.*– Reglas a seguir respecto de los gastos.

1.– Para su correcta valoración, los solicitantes facilitarán en su solicitud la información adecuada sobre las previsiones justificadas de ejecución del proyecto, en especial en lo relativo a los costes, a través de presupuestos detallados, y/o facturas proforma, y sus correspondientes plazos de ejecución.

2.– Las inversiones no podrán encontrarse iniciadas con anterioridad a la fecha de solicitud de ayuda. Esta situación se comprobará mediante certificación de la Dirección de Desarrollo Rural.

3.– Las inversiones habrán de localizarse en los municipios de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con el artículo 1.2 del presente Decreto.

4.– La financiación de los proyectos de inversión vinculadas a la creación de empleo quedará condicionada a la efectiva creación de los puestos de trabajo proyectados así como al mantenimiento de los mismos durante un periodo mínimo de cinco años.

5.– Las inversiones y actividades auxiliables habrán de ejecutarse en los plazos previstos en la resolución de concesión de ayuda, acomodándose dichos plazos a las previsiones de la solicitud y a la naturaleza de los créditos destinados a su financiación. No obstante, cuando medie causa justificada, y por Resolución del Director de Desarrollo Rural, se podrá conceder una prórroga para la ejecución, no superior a dos años.

6.– Deberá mantenerse el destino de las inversiones y actividades subvencionadas durante, al menos, los cinco años posteriores a su realización.

7.– La persona o entidad solicitante adoptarán todas las medidas necesarias para garantizar que los equipos y materiales adquiridos sean los más adecuados en calidad, coste y mantenimiento.

*Artículo 4.*– Beneficiarios.

1.– Podrán resultar personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente Decreto las personas físicas, las personas jurídico-privadas con o sin ánimo de lucro, así como Entidades locales, Entes Públicos de carácter local, Corporaciones de derecho público y cualquier otra forma jurídica recogida en la legislación vigente, que cumplan, además de los requisitos señalados en cada modalidad de ayuda, los siguientes requisitos:

a) Goiko 1.2 artikuluan aurreikusitako eremuren batean egin behar da laguntza jaso dezakeen ekintzaren bat.

b) Enpresen kasuan, eskatzailea enpresa txiki edo ertaina izan beharko da, Batzordeak 1996ko apirilaren 3an eman zuen 96/280/EE Gomendioan (apirilaren 30eko L/107 zenbakiko EEAO) ezarritakoarekin bat; gomendio hori, hain zuzen ere, enpresa txiki edo ertainen definizioari buruzkoa da, eta definizio hori bat dator enpresa txiki edo ertainei estatuko laguntzak emateari buruz Europako Batasunak eman dituen zuzentarauekin (Kontseiluak 1998ko maiatzaren 7an emandako 994/98 (EE) Erregelamendua). Betekizun hau ez zaie ente publikoei ezarriko.

c) Zergak eta Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharrak egunean izatea.

2.– Enpresaren bat martxan jartzeko eskatutako laguntzei dagokienez, edozein eratako nortasuna hartzen duela ere, enpresa kudeatzeko osatuko den erakundea izango da onuradun; era berean, enpresaren ordezkapen legala duena izango da eskatzailea, 5.1.c. artikuluak dioenaren arabera behar bezala ziurtatuz gero.

*5. artikulua.–* Eskaerak, eta eskaerak aurkezteko epea.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskariak dekretuko V. kapituluan izendatutako erakunde laguntzaileari aurkeztu behar zaizkio, bai zuzenean, bai Mendi Nekazaritzako Elkarteen bidez eta Landa Garapeneko Elkarteen bidez. Eskariari ondoko agiriak erantsi beharko zaizkio, dekretu honetako kapitulu bakoitzean berariaz zehaztutakoez aparte:

a) Eskabide-orria, behar den moduan beteta. Inprimakia lehen esandako erakundeen egoitzetan jaso ahal izango da.

b) Ordainketa burutzeko dokumentazioa («Hirugarrenen Alta»).

c) Eskatzailearen (pertsona fisikoa) NANaren fotokopia.

d) Eskatzailea eratzen ari den pertsona juridikoa bada, legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

e) IFZren fotokopia, erakundearen estatutuak, eta erakundeari dagozkion erregistro publikoetan izena emana duela egiaztatzeko ziurtagiria, eskatzailea pertsona juridikoa bada.

f) Egin beharreko jardueraren azalpen-memoria. Honako hauek jasoko ditu: aurrekontu zehatzak, edo/eta proformako fakturak, eta horiek betetzeko aurreikuspen zehaztua.

g) Udal-lizentziak eta baimenak, beharrezkoak badira.

a) Realizar alguna de las actividades auxiliables dentro de alguna de las zonas previstas en el artículo 1.2.

b) En el caso de empresas, los solicitantes deberán tener la consideración de pequeña o mediana empresa de conformidad con lo establecido en la Recomendación 96/280/CE de la Comisión, de 3 de abril de 1996 (DO-L n.º 107, de 30 de abril), relativa a la definición de pequeñas y medianas empresas (Pymes) también empleada en las Directrices comunitarias sobre ayudas de estado a las pequeñas y medianas empresas (Reglamento (CE) n.º 994/98 del Consejo, de 7 de mayo de 1998). No será de aplicación esta exigencia cuando se trate de entes públicos.

c) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

2.– En caso de ayudas solicitadas para la puesta en marcha de una empresa, bajo cualquier modalidad de entidad personificada, tendrá la consideración de beneficiario la entidad que se constituya para su gestión, actuando como solicitante quien ostente la representación legal de la misma de manera debidamente justificada conforme al artículo 5.1.c).

*Artículo 5.–* Solicitudes y plazo de presentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el presente Decreto se presentarán ante la Entidad Colaboradora designada en el Capítulo V del presente Decreto, bien directamente o bien a través de las Asociaciones de Agricultura de Montaña y Asociaciones de Desarrollo Rural, adjuntando la siguiente documentación junto con la que específicamente se determine en el Capítulo correspondiente de este Decreto:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado, el cual podrá recogerse en las sedes de las entidades anteriormente indicadas.

b) Documentación para el libramiento de pagos («Alta de Terceros»).

c) Fotocopia del DNI de la persona física solicitante.

d) En el supuesto de que el solicitante sea una persona jurídica en constitución, fotocopia del DNI de su representante legal.

e) Fotocopia del NIF, Estatutos de la entidad y acreditación de su inscripción en los registros públicos correspondientes, en caso de que el solicitante sea persona jurídica.

f) Memoria descriptiva de la actuación a desarrollar, que deberá incluir presupuesto detallado y/o factura proforma, así como previsión de ejecución detallada.

g) Licencias y permisos municipales, en su caso.

h) Eskatzaileak dauzkan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzeko agiria.

i) Helburu berbererako beste edozein erakunde publiko zein pribatuari laguntzarik eskatu bazaio, eskabideon zerrenda eta egoera (ukatuta, erantzun zain, edo onartuta), eta eskatutako diru-kopurua. Beste inolako laguntzarik eskatu ez bada, zinpeko aitorpenaren bidez egiaztatuko da.

2.– Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu batek, urtero-urtero, hurrengoak jasoko ditu, besteak beste: laguntza-eskabideak aurkezteko epea, eskueran dagoen aurrekontu-kreditua, eta laguntza jaso dezaketen proiektuen iraupena. Agindu horren edukiak ezin izango du Dekretu honetan esandakoa aldatu. Nolanahi ere, urtean bertan, epea ireki baino lehen aurkeztutako eskabideak ere onartuko dira.

*6. artikulua.*– Aurkeztutako eskaeren akatsak zuzentzea.

Eskabidean akatsen edo okerren bat dagoela ikusiz gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio; eskatzaileak, era berean, 10 egun izango ditu akatsok zuzentzeko. Epe hori igaro ondoren akatsak zuzendu barik badaude, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta Landa Garapeneko zuzendariak ebazpen bat emango du horri buruz.

*7. artikulua.*– Laguntzen kudeaketa, kontrola eta jarraipena.

1.– Erakunde laguntzaileak beteko ditu dekretu honetan aurreikusitako laguntzetarako kudeaketa lanak, dekretuko 26. artikuluan zehazten diren moduan.

Era berean, erakunde laguntzaileak egingo du diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena. Horretarako, egoki deritzon ikuskapena egin ahal izango du, dirulaguntza lortu duten proiektuak egoki gauzatzen direla ziurtatzeko; eta onuradunek eskatzen zaizkien agiri guztiak eta informazioa aurkeztu beharko dute.

2.– Nekazaritza eta Arrantza Sailari ondorengoak dagozkio, erakunde laguntzailearen txostena ikusita: dirulaguntza jaso duten proiektuak benetan bete direla ikuskatzea eta ziurtatzea —ordainketa egiteko aurreko baldintza baita—, dirulaguntza ordaintzea eta erakunde laguntzailearen esku utzi gabeko beste edozein jarduera, edo indarreko legeriaren arabera egoki dakiokeen beste edozein.

*8. artikulua.*– Balioespen-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko balioespen-batzorde bat eratuko da, eta Landa Garapeneko zuzendariak izendaturiko kide hauek izango ditu:

h) Documento acreditativo de que el solicitante se halla al corriente de sus obligaciones tributarias, así como de pagos a la Seguridad Social.

i) Relación de otras solicitudes de ayudas instadas para el mismo objeto, detallándose el estado de las mismas (denegada, pendiente de contestación o concedida) e importe. En caso de no haberse solicitado ninguna otra ayuda, habrá de presentarse declaración jurada acreditativa de tal extremo.

2.– Anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, entre otros extremos, se efectuará la convocatoria de las ayudas aquí reguladas, se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda, se dará publicidad al crédito presupuestario disponible y se determinará la duración de los proyectos objeto de ayuda, no pudiendo contravenir su contenido lo dispuesto en el presente Decreto. No obstante lo dicho, se admitirán las solicitudes presentadas anualmente con anterioridad a la apertura del plazo.

*Artículo 6.*– Subsanación de defectos en las solicitudes.

Si en la solicitud se advirtiera algún defecto o inexactitud se le comunicará al solicitante, quien dispondrá de un plazo de 10 días para proceder a su subsanación, transcurrido el cual sin haber procedido a dicha subsanación se le tendrá por desistido en su petición, previa Resolución del Director de Desarrollo Rural.

*Artículo 7.*– Gestión de las ayudas, control y seguimiento.

1.– Corresponderá a la Entidad Colaboradora las tareas de gestión de las ayudas previstas en el presente Decreto, en los términos que se fijan en el artículo 26 del mismo.

Asimismo, la Entidad Colaboradora efectuará el control y seguimiento de las actividades subvencionadas. Para ello, podrá realizar cuantas inspecciones considere oportunas en orden a comprobar la correcta ejecución de los proyectos subvencionados, a cuyos efectos los beneficiarios estarán obligados a facilitar cuanta documentación e información les sea solicitada.

2.– Corresponderá al Departamento de Agricultura y Pesca, visto el informe de la Entidad Colaboradora, y como condición previa para su pago, la inspección y certificación de la efectiva ejecución de los proyectos subvencionados, el pago de la subvención y cuantas otras actuaciones no hayan sido encomendadas a dicha Entidad o le correspondan según la normativa vigente.

*Artículo 8.*– Comisión de valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por los miembros que figuran a continuación, los cuales serán designados por el Director de Desarrollo Rural:

– Mendikoi A.B. Erakunde Laguntzaileko teknikari bat.

– Nekazaritza eta Arrantza Saileko teknikari bat.

– Aipatutako bi erakunde horietako edozeinetako teknikari bat.

2.– Batzordeak beste pertsona batzuen laguntza eskatu ahal izango du, beraien jakintza berezia dela eta, eskabideak hobeto balioesteko.

Era berean, proiekturen batek beste sail nahiz administrazio publiko batzuen jarduteko eremuan eragina duela ikusiko balitz, sail edo administrazio horri espedientean parte hartzeko aukera emango zaio.

3.– Laguntzak emateko irizpide nagusia hau da: Dekretu honen eranskinaren arabera, gainbeheran edo egiturazko arazoekin dauden landa-inguruneetako proiektuetarako eskabideak balioetsiko dira, Landa Garapeneko Legeari eta Dekretu honetako helburuei egokitzen bazaizkie, eta 35 puntu arteraino eman dakizkieke. Batzordeak bere proposamenak egiteko kontuan izango dituen gainontzeko balioespen-irizpideak ondoren azaltzen dira, eta 5 puntu emango dira gehienez ere horietako bakoitzean. Eskatzaileak 40 puntu beharko ditu gutxienez laguntza jaso ahal izateko.

Laguntzak balioesteko eta zenbatesteko irizpideak:

– Ingurunearen erabateko garapenerako eta lurralde-desorekak zuzentzeko mesedegarri izatea.

– Ekoizpenen arteko desorekak zuzentzea.

– Inbertsioa berritzailea izatea.

– Proiektuaren sustatzaileek berme nahikoa ematea, bai ekonomiaren nahiz finantzen arloetako kaudimenari dagokienean, bai enpresa moduan ere.

– Inguruneko ekoizpen-faktoreak erabiltzea.

– Lanpostuak sortzea nahiz mantentzea.

– Proiektuaren balio erantsiaren tasa edo produktibitatea handitzea.

– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa nahiz finantzazkoa.

4.– Batzorde horrek komeni den ebazpen-proposamena egingo dio Landa Garapeneko zuzendariari, hori bai, eskabide bakoitzaren eskualdeko erakundea laguntzailearen nahiz landa ingurunearen garapenerako elkarte zein erakundeen txostenak ikusita, eta dekretu honetan aurreikusitako laguntzak esleitzeko irizpideak kontuan hartuta.

– Un técnico representante de la Entidad Colaboradora Mendikoi, A.B.

– Un técnico representante del Departamento de Agricultura y Pesca.

– Un técnico de cualesquiera de las dos entidades mencionadas.

2.– La Comisión podrá requerir la participación de aquellas personas que en atención a sus conocimientos específicos, estime necesarias para una mejor valoración de las solicitudes.

Asimismo, en caso de estimarse que determinados proyectos pudieran afectar a ámbitos de actuación de otros Departamentos o Administraciones públicas, se dará participación a los mismos en el expediente.

3.– Como criterio principal a la hora de la concesión de las ayudas, se valorarán las solicitudes para proyectos que se adecuen a la precitada Ley de Desarrollo Rural y a los objetivos del presente Decreto y estén ubicados, conforme figura en el Anexo al presente Decreto, en zonas rurales en declive o con problemas estructurales, valorándose hasta 35 puntos. El resto de criterios que tendrá en cuenta la Comisión para emitir su propuesta serán los que figuran a continuación, cada uno de los cuales se valorará hasta una máximo de 5 puntos. El solicitante necesitará un mínimo de 40 puntos para poder acceder a la ayuda.

Criterios de valoración y de cuantificación de las ayudas:

– Contribución al desarrollo integral de la zona y a corregir los desequilibrios territoriales.

– Contribución a corregir los desequilibrios productivos.

– Carácter innovador de la inversión.

– Garantías suficientes de los promotores del proyecto, tanto en cuanto a su solvencia económico-financiera como empresarial.

– Utilización de los factores productivos de la zona.

– Creación y mantenimiento de empleo.

– Tasa de valor añadido o incremento de productividad del proyecto.

– Viabilidad técnica, económica y financiera del proyecto.

4.– Dicha Comisión, a la vista de los informes tanto de la Entidad Colaboradora como de las asociaciones de desarrollo rural u organizaciones similares implantadas en la comarca correspondiente a cada solicitud, y sobre la base de los criterios de adjudicación de las ayudas previstos en el presente Decreto, elevará la oportuna propuesta de Resolución al Director de Desarrollo Rural.

*9. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Landa Garapeneko zuzendariari dagokio eskabideen ebazpena egitea, Balioespen Batzordeak emandako proposamena ikusita; eta ebazpen-proposamena loteslea ez denez, ebazpena harekin bat ez datorrenean, ebazpenarekin batera arrazoiak eman beharko ditu.

NBBEF-bermeak kofinantzatutako laguntzen kasuan, irailaren 26ko 425/1996 Dekretuan eta geroagoko aldaketetan xedatutakoa beteko da; izan ere, horien bidez sortu zen nekazaritzako politika bateratuak Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako gastuak ordaintzeko erakundea, eta hala ezarri ziren erakundearen antolaketa eta jardunbidea ere.

2.– Laguntzak eskatzeko epea ireki denetik 6 hilabete igaro ondoren, ebazpen adierazirik jaso ez duten eskabideak ez direla onartu ulertu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 44. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

3.– Dekretuan aurreikusitako laguntzen ebazpenaren banan banako jakinarazpena ahaztu gabe, Landa Garapeneko zuzendariaren ebazpenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira dekretu honen babespean emandako dirulaguntzen kopuru osoa eta onuradun izan diren erakundeen zein pertsonen zerrendak.

4.– Proiektuak onetsi eta dagokien dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako proiektua dekretu honetan nahiz bakoitzaren planean edo programan ezarritako irizpideetara hobeto egokitzeko eskatuko zaizkien aldaketak sartu beharko dituzte eskatzaileek.

5.– Laguntzak emateko ebazpenean puntu hauek zehaztuko dira:

a) Dirulaguntza jaso dezakeen inbertsioaren zenbatekoa.

b) Emandako laguntzaren zenbatekoa; zehaztu egin behar da zein den EBko funtsekin finantzatutako zatia eta zein EAEko Aurrekontu Orokorrekin finantzatutakoa.

c) Proiektuak burutzeko baldintzak eta epea, eta zehatz-mehatz lanpostuak sortzearena.

d) Onuradunen betebeharrak.

e) Onuraduna eratzen ari den pertsona juridikoa bada, klausula bat gehituko da, zeinetan pertsona juridikoa eratzea laguntza jaso ahal izateko baldintzatzat joko den.

*10. artikulua.–* Emandako laguntza onartzea.

Onuradunak hilabeteko epea izango du, laguntza eman zaiola jakinarazten zaion momentuan hasita, be-

*Artículo 9.–* Resolución.

1.– Corresponde al Director de Desarrollo Rural, a la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, la resolución de las solicitudes, exigiéndose la motivación de dicha decisión cuando se aparte de la Propuesta de Resolución, la cual no tiene carácter vinculante.

Cuando se trate de ayudas cofinanciadas por el FEOGA-Garantía, se estará a lo dispuesto en el Decreto 425/1996, de 26 de septiembre, y sus posteriores modificaciones, por el que se constituye el Organismo Pagador de los gastos correspondientes a la política agraria común en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establece su organización y funcionamiento.

2.– Transcurridos 6 meses, desde la apertura del plazo de solicitud de la ayuda, sin haberse dictado y notificado Resolución expresa, las solicitudes se podrán entender desestimadas a los efectos de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la Resolución de las ayudas previstas en este Decreto, por Resolución del Director de Desarrollo Rural se publicará en el BOPV el total de las subvenciones y entidades o personas beneficiarias al amparo del presente Decreto.

4.– La aprobación de los proyectos y la concesión de la subvención correspondiente podrá supeditarse a la introducción por los solicitantes de aquellas modificaciones que sean exigidas para una mejor adaptación del proyecto presentado a los criterios establecidos en el presente Decreto y, en su caso, en el Plan o Programa correspondiente.

5.– La Resolución de concesión de ayudas establecerá lo siguiente:

a) El importe de la inversión subvencionable.

b) El importe de la ayuda concedida, especificando, en su caso, la parte de subvención financiada con cargo a fondos de la U.E. y la parte que se financia con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV.

c) Las condiciones y el plazo de ejecución de los proyectos, y en concreto la de creación de empleo.

d) Las obligaciones de los beneficiarios.

e) En el caso de que el beneficiario sea una persona jurídica en fase de constitución, se añadirá una cláusula que recoja como condición para recibir la ayuda la constitución de la misma como entidad personificada.

*Artículo 10.–* Aceptación de la ayuda concedida.

El beneficiario deberá aceptar expresamente y por escrito la ayuda concedida en el plazo de un mes a con-

rak laguntza onartzen duela idatziz adierazteko. Aipatutako epea igaro ondoren, onarpenaren jakinarazpenik ez badago, laguntzari uko egin diola ulertuko dugu.

*11. artikulua.–* Betebeharrak.

Dekretu honetan arautuko laguntzen onuradunek betiere honako betebehar hauek dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzekoa.

b) Laguntza eman den xede horretarako propio erabiltzea, laguntza emateko ebazpenak ezarri dituen baldintzen arabera erabiltzea ere.

c) Laguntzekin egindako inbertsioari bere horretan eustea, egin eta geroko bost urteetan gutxienez.

d) Erakunde laguntzailearen, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta, behar bada, Europar Batasuneko erakundeen esku jartzea beharrezko agiri guztiak, inbertsioa eta gastuak egin direla egiaztatu ahal izan ditzaten.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2 artikuluak ezarritako betebeharrak bereganatzea, eta, bereziki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ere behar duten informazio guztia eman behar diete, dekretu honen kontura jasotako laguntzen erabileraren gaineko fiskalizazio-funtzioak bete ditzaten.

f) Hala eskatzen bazaio, jasotako funts publikoen jatorriari zabalkundea ematea.

*12. artikulua.–* Ez betetzeak eta gorabeherak aldatzea.

1.– Betebeharrak bete gabe geratu direla ulertuko da ondorengo kasuetan:

a) Jasotako laguntzak, osorik zein zatika, dekretu honetan aurreikusitako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabili badira.

b) Dekretu honetan ezarritako betebeharrak edo, dagokion kasuan, laguntza emateko ebazpenean ezarritakoak bete ez badira.

c) Beste xedapenen modu orokorrean ezarritako edozein betebehar ez betetzea.

2.– Artikulu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako kasuren bat gertatu dela egiaztatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako kopuruak eta dagozkien legezko interesak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekre-

tar desde la recepción de la comunicación por la que se notifica su concesión, transcurrido el cual sin aceptación expresa se entenderá que renuncia a la misma.

*Artículo 11.–* Obligaciones.

Los beneficiarios de las ayudas reguladas en el presente Decreto deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida.

b) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la Resolución de concesión.

c) Mantener el destino de la inversión subvencionada al menos durante los cinco años posteriores a su realización.

d) Poner a disposición de la Entidad Colaboradora, del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y, en su caso, de las instituciones de la Unión Europea, toda la documentación necesaria para que éstos puedan verificar la ejecución de la inversión y la realización del gasto.

e) Asumir las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en especial facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas recibidas con cargo a este Decreto.

f) Darle la publicidad que, en su caso, fuera requerida sobre la procedencia de los fondos públicos recibidos.

*Artículo 12.–* Incumplimiento y modificación de las circunstancias.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento los siguientes:

a) La aplicación total o parcial de las ayudas percibidas para actividades distintas de las previstas en el presente Decreto.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Decreto, o en su caso, de las que se establezcan en la Resolución concedente.

c) El no cumplimiento de cualquier otra obligación que así se halle establecida con carácter general por otra disposición.

